

San Silbestreak kaleak eta auspoak berotuko ditu urteari amaiera korrika emanaz

Lau kilometroko zirkuitoa antolatu da Hernanin zehar eta Plazan hasi eta bukatuko da 18:00etatik aurrera. Aurretik, 17:30etan, haur eta gazteen lasterketak hasiko dira.

HERNANI SAN SILBESTREA

Urtea korrika amaitzea ohitura bihurtu da Munduko herri askotan eta Hernanin ere San Silbestrea antolatzen hasi ziren duela urte batzuk. Gainera Wukroren aldekoa izaten da eta gaur, 17:30etan hasiko da. Aurreten egurdia lagun izango da.

Gaztetxoak izango dira korrika egiten aurrenekoak. Hasteko, 8 urte artekoak abiatuko dira, 300 metroko ibilbidea osatzeko. Ondoren, 17:45etan, 9-13 urte bitarteko txanda izango da, eta 800 metro egingo dituzte haiek. Eta azkenik, 18:00etan abiatuko da lasterketa nagusia, 14 urtetik gorakoena. Aurreko urteetan bezala, 4 kilometroko zirkuitua osatuko dute: Plazatik Lizeaga aldera abiatu, auzoari buelta eman, Atzietatik Zinko-

eneara jaitsi eta handik Floridara, Montebideo eta Karmelo Labakatik Latsunbeberriera igo, auzoari buelta, eta Urbieta kaltetik Plaza Berrira azalduta, Kale Nagusian gora bukatu, ikusleek osatuko duten pasillotik igarota, Plazaraino.

Korrikalariak, Plazan jasoko dituzte dortsalak eta opariak, probaren aurretik. Eta oraindik apuntatu ez direnek, bertan izango dute azkeneko aukera; 11 euro izango dira.

Konpresa bilketa 'Hegoak Etiopian' elkarteak

Hilerokoagatik eskolara joan ezin duten nesken egoera aldatzea eta emakumeen ahalduntzea helburu duen *Hegoak Etiopian* taldearekin elkarlanean, konpresa bilketa ere egingo da 16:00etatik aurrera Plazan. **K**



Aurreko urtean giro ezin hobean jendea moztarreakin irten zen.

Gabonetako liburu eta disko azoka, Plaza Berrin

10:30etatik 14:00etara egongo da gaur, Kaleko elkartearen eskutik, 1.000 liburu eta disko baino gehiagorekin. Material bilketa ere egingo dute.

HERNANI KALEKO ELKARTEA

Kirolak bakarrik ez, kulturak eta literaturak ere izaten dute euren txokoa urteko azken egun honetan. Urteroko ohiturari eutsi, eta Gabonetako liburu eta disko azoka jarriko du gaur, Kaleko Elkartearen eta Kultur Elkarteak, Hernanin. Plaza Berrin izango da, goizeko 10:30etatik 14:00etara.

Bertan aurkituko dituzte herriarrek, «egoera onean dauden 1.000 liburu, disko eta CD baino gehiago», aurrerratu dutenez.

Gainera, aurrekoetan bezala, oraingoan ere material bilketa egingo dute, azokako postuan. Horrela, nahi duenak, bertan eman ahal izango ditu, erabiltzen ez dituen liburu, musika CD eta binilozko diskoak. Eta jakinarazi dute, norbaitek mate-



Jendeak diskoak eta liburuak eskuratzeko aukera du gaur.

riala eman nahiko balu, baina bihar bertaraterik izango ez balu, antolatzaileekin harremanetan jarri daitezela, helbide

elektroniko honetara idatzita: azokasolidario@gmail.com. Informazio gehiago, webgunean: azokasolidario.eus. **K**



Erronda, ohiturari jarraitzeko

HERNANI OHITURA ZAHARRAK

Ohiturari jarraituz, Urte Zaharreko Erronda antolatu du Ohitura Zaharrak abesbatzak, gaur arratsaldean. 17:00etan abiatuko dira, udaletxeko arkupeetatik, kantu, koplak eta bertsoz agurtzeko urtea. Herritarrei luzatu diete gonbitea, bertara azaltzeko.

Koplak kantari Santiagomendin

ASTIGARRAGA KANTUZ

Kantuz taldea Santiagomendin barrena ibiliko da baserri baserri *Dios te Salveko* koplak kantatzen. 11:00etan hasiko dira eta Manuel Lekuonak esan zuenez koplak egiturari jarraitzen diote Gabon kantu zaharrenak. Euskal Herriko eskualde gehienetako usadioa dira etxeko guztiei eginiko koplak.

Txapelketa bana urtea maiatzeko

GOIZUETA ETA HERNANI MUS

Urteari bukaera emateko, mus txapelketa bana antolatu dute gaur, Goizuetan eta Hernanin. Umore Ona elkartearen izango da aurrenekoa, 16:00etan hasita. Hernanin, berriz, Kontrakantza gaztetxean antolatu dute mus txapelketa, 16:00etan hasita hori ere; eta 5 euro izango dira izenematea, bikoteko.

Gazte topa, gauean

ASTIGARRAGA GAZTE ASANBLADA

Gazte Topa egingo dute Zipotza tabernan, 01:30etan, urte berrinari ongi etorria emateko.

Gaur, txapelketa

HERNANI FUTBOLA

Zubipen gaur 11:00etan hasita Emakumezkoen VI Joxean Arabiatarre txapelketa jokatu du Hernani, Tolosa eta Realarekin.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerarioorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

- * Zerbitzu partikularrak
- * Erresketak
- * Beilatokiak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, korroak...

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK

943 55 56 94

Txirrita, 10 - HERNANI

ITXASPE

Arrandegia

Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

GABON HAUETAN OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

nibiru

UNIKER EDERGINTZA ZENTROA

- SPA
- Tratamenduak
- Mikro pigmentazioa
- Masajeak
- Indiba
- Tratamenduak
- Manikura
- Pedikura
- Fotodepilazioa
- Automakillaje
- Ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

GAUR Urtezahar-eguna lainoekin amaituko da. Hala ere, eguna laino gutxiarekin eta lainoguneekin hasiko da. Egunak aurrera egin ahala behe-lainoak ugartzen joango dira. **Min.4° / Max.13°**

BIHAR Urteberrian zerua oso lainotsu egongo da eta ipar partean han-he-menka euri bikia edo zirimiria egingo du, bereziki ekialdean. **Min.8° / Max.12°**



Txotx denboraldiaren inaugurazio ekitaldirik ez da izango Hernanin

Urtarrileko ekitaldia ez da izango, baina 'Botilako Uzta Berria' ekitaldia maiatzean izateko lanean ari dira Txotx Mahaia eta Euskal Sagardoa.

HERNANI SAGARDOA

2020ean Txotx Inaugurazio Ekitaldirik ez egitea erabaki du Txotx Mahaia (Udalak, Kaxkoko bizilagunen elkarteak, Berriak merkataritza eta ostalaritza elkarteak eta herriko sagardogileen ordezkariak osatzen dute Txotx Mahaia). Azaldu dutenez «azken urteetan Txotx inaugurazio ekitaldiak asko ugartu direnez, eta gure



Tilosetan egin zen irekiera aurrekoan eta pelota omendu zen.

eskualdekoa den Astigarrakoa hain ezaguna denez, Txotx denboraldia noiz hasten den argi geratzen da guztiontzat.

Bada beste alor bat, ordea, hainbeste garatu gabekoa, eta sagardo sektorearentzat eta kontsumitzailearentzat garran-

tzia duena: botilako uzta berriaren aurkezpena.

Hori dela eta, Txotx Mahaia eta Euskal Sagardoa Jatorri deitura elkarlanean ari dira datoren maiatzean *Botilako Uzta Berriaren* aurkezpena Hernanin antolatuko. **K**

Realeko neskek gaur Zakumendegin entrenatuko dute goizean zehar

Helburu nagusia emakumeen kirola «ikusarazi eta bultzatzea da» eta 10:00etatik 12:00etara egongo dira urteko azken egunean.

ASTIGARRAGA FUTBOLA

Realeko nesken aurreneko taldea zuzenean ikusteko aukera izango dute gaur goizean, Zakumendegira gerturatzen direnek. Izan ere, bertan entrenatuko dute txuri-urdinek, 10:00etan hasi eta 12:00ak arte;

eta saioa irekia izango da, ikus-tera hurbildu nahi duten guztiontzat.

Emakumeen kirola «ikusarazi eta bultzatzeko asmoz», Gipuzkoako kirolean «erreferente» den taldea Astigarragara ekarri nahi izan du Mundarrok, urtea agurtzeko; eta bertaratze-

ko gonbitea luzatu die, Urumea bailarako bizilagun guztiei.

Aurreko astean urteko Gipuzkoako kirolari onenen saria jaso zuten Anoetan Kirol Kazetarien Elkartearen eskutik. 2019an Erreginaren Kopa irabazita, entzute haundia izan du Realak, urte honetan zehar; eta baita makina bat errekonozimendu eta omenaldi jaso ere. Urteko azkenekoa, Astigarragan jasoko du gaur, bailarako zaleen eskutik. **K**

Anartz Oiartzabal bigarren mailako Gipuzkoako finalera sailkatu da

Palan, Amaia Irazustabarrenak nesken aurreneko Gabon Kiniela irabazi du Araiztegirekin batera.

URUMEA PELOTA

Jardunaldi ona izan dute pasa den asteburuan Hernaniko pelotariak, bederatzigarai eta bost porrotekin, baina porrot garrantzitsuak izan direla ere esan beharra dago.

Emaitzarik onena Anartz Oiartzabal gazteak lortu du, bigarren mailako Gipuzkoako txapelketako finalerdian jubentzetan Zumaiako Alkantara 22-5

mendean hartuta. Honela finalerako txartela lortu du. Unax Uitziz gazteak beste finalerdia galdu zuen, 22-9 galdu zuen Olsagastiren aurka (Behar Zana) eta ez da hernaniarren arteko finala jokatu.

Era berean, garrantzitsua izan da Oier Azpeitiaren garai-pena. Behar Zanak pilotariari 2-0 irabazi dio eta Donostialdeko kontsolazio finala jokatzeko sailkatu da.

Beste aldean, Oiartzabal-Insausti II jubentzetan porrota dago Zumaiaren jokatuak bigarren mailako Gipuzkoako txapelketako finalean. 22 eta 10 galdu zuten Tolosako Perurena - Albeniz II bikotearen aurka. Bikote hernaniarrak sailkapen fasean baino hobeto jokatu zuen baina ez zen nahikoa izan tolosarren aurka.

Palan, Getxon, Nesken I. Gabon Kinielen Amaia Irazustabarrenak eta Amaia Araiztegi paleta larruz; Isasmendi eta Murga, eta Flaviano eta Mendi-zabal garaitu zituzten 25-17-10 tanteoarekin. **K**

«EH Bilduk dio EAJren jarrera aldatu egin dela»

Alderdi jeltzaleak aurrekontuetan abstenitu izanaren arrazoia argitu nahi du ohar batean.

HERNANI EAJ-PNV

EAJk hartu dituen erabaki batzuen gainean azalpen batzuk eman nahi ditu eta horretarako prentsa ohar batean ondorengoa adierazi nahi du Andoni Amorrarri. «Foro batzuetan EH Bilduk adierazi du EAJ-PNVk 2020rako aurrekontuen aurrean jarrera aldatu duela. Badirudi eta irudipena daukagu arraroa iruditu zaiola EAJ-PNV abstenitu izana 2020ko aurrekontuen bozketan. Azaldu dugun bezala, uste genuen eta uste dugu egoera oso delikatua dela, batez ere hirigintzan, eta horregatik gure posizionamendu orokorra».

EAJ-PNVk argitu nahi du «gure alderdi politikoa etengabe garatzen ari den egitura dela, baina ez dituela printzipioak aldatzen. Gure helburua hernaniarrak euren bizi kalitatea hobetzeko zerbitzatzea da, eta, hori lortzeko, une bakoitzean modurik onenean jokatzeko dugu. Ez dugu bilakaera huts gisa ikusten, bertute gisa baizik, eta gusatuko litzaiguke alderdi politikoz guztiek ere bide hori egitea».

Beste urte batzuetan Bilduk aurkeztutako aurrekontuen aurka bozkatu zuen PNVk, eta «Udalaren egoera beste bat izan balitz, oraingoan 15 zuzenketak aurkeztuko genituzke eta ez dakigu zer gertatuko zen» esan du Amorrarri. «Egia esan, abstenitu egin gara, eta espero dugu guztion jarrerak hobetzen joango direla, beste alorretan jarrerak hurbildu ahal izango ditugula eta bizi-kalitatea hobetzeko balioko dutela». **K**


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA
Antonio Madina Arrozpide
2018ko abenduaren 31n hil zen, 71 urte zituela

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko. Gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

ETXEKOAK




Hernanin, 2019ko abenduaren 31n

IV. URTEURRENA
Milagros Ormazabal Lasa
2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela

- Goian Bego -

Betiko izango zaitugu gogoan.

ETXEKOAK




Hernanin, 2019ko abenduaren 31n

ESKERTZA
Julian Arana Jaka
Orain egun gutxi hil zen

- Goian Bego -

Haren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretien guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK



Hernanin, 2019ko abenduaren 31n

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak, lan egingo luke tabernan, gaez. Deitu: 637 993 061 Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)